



PRENTSARAKO OHARRA

## **IA 250 PERSONAK EZAGUTU DITUE BATZARRETXEEN ORAINALDIA ETA IRAGANA “BATZARRETIK BATZARRERA” PROGRAMAREN BITARTEZ**

- **Joan dan urriaren 20tik antolau diran zazpi bisitetarako plaza guztiak bete egin dira, eta daborduko Bizkaiko Batzar Nagusien ekimen horren bigarren ediziorako itxaron zerrendea dago.**

*(Bilbon, 2019ko abenduaren 15ean).*- Herritarren artean Bizkaiko Batzarretxeen iragana eta orainaldia ezagutuazo dauen “Batzarretik Batzarrera” programaren lehenengo edizinoa arrakasta handiz amaitu da gaur. 16 eta 80 urte arteko 245 personak hartu dabe parte joan dan urriaren 20an hasi zan eta zazpi bisita izan dituan programan.

Parte hartu daben personeren artean, Zientzia Politikoetako ikasleak, EHUko Zuzenbide irakasleak eta Bilbotik eta Bizkaiko beste herri batzuetatik etorritako familiak egon dira. Bisitari gehienek Bizkaiko Batzar Nagusien ekimenaren egokitasuna azpimarratu dabe. Batzar Nagusiek euren egoitzak herritarrentzat edegi ditue, erakundearen funtzionamentu historikoa eta gaur egungoa ezagutuazoteko.

Dobako bisita gidau horreetan guztietan, ibilbidea Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko Egoitzan hasi da, Hurtado de Amezaga kaleko 6an. Egoitza horretan arte garaikide bilduma garrantzitsua ere badago. Bertan, lurralde historikoaren gobernazioarekin erlazionautako gaiak eztabaidatzen diren Batzordeen Aretoaren buru dan Jorge Oteizaren “Guernica” brontzea azpimarratu daiteke. Bertan, instalazioetatik ibilteko, eraikin osoan dagozan artelanak ikusteko eta Batzordeen Aretoan, normalean Batzarretako alderdietako batzordekideek eta Foru Diputatuek hartzen dituen jarlekuetan, jarteko aukerea euki dabe.

Bilboko egoitza bisitau ostean autobusa hartu dabe, urriaren 20an eta azaroaren 28an eta 30ean Gernikako Batzarretxea bisitetako, azaroaren 7an eta 9an Gerediagako Batzarretxea ikusteko eta, amaitzeko, abenduaren 12an, eguenean, eta gaur, 15ean, Abellanedako Batzarretxea (Enkarerrietako Museoa) bisitetako. Enkarerriko Batzarretxean amaitu da, hain zuzen be, aurton programau dan azkenengo bisitea.

Bizkaiko Batzar Nagusiak “Batzarretik Batzarrera” programaren bigarren edizinoa antolatzen dabilz beharrean, herritarren aldetik jaso dauen erantzun bikaina ikusi ostean. Izan be, daborduko 80 persona dagoz itxaron zerrendan, gure lurraldeko Batzarretxeen egoitzak eta funtzionamentu historikoa eta gaur egungoa hobeto ezagutzeko gogoz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **CASI 250 PERSONAS HAN CONOCIDO EL PRESENTE Y EL PASADO DE LAS CASAS DE JUNTAS CON EL PROGRAMA “BATZARRETIK BATZARRERA”**

- **Todas las plazas para las siete visitas organizadas desde el pasado 20 de octubre se han llenado y ya hay lista de espera para la segunda edición de esta iniciativa de las Juntas Generales de Bizkaia.**

*(Bilbao, a 15 de diciembre de 2019).*- La primera edición del programa “Batzarretik Batzarrera”, que ha difundido entre la ciudadanía el pasado y presente de las Casas de Juntas de Bizkaia, ha finalizado hoy con gran éxito. Un total de 245 personas de entre 16 y 80 años han participado en este programa de siete visitas que comenzó el pasado 20 de octubre.

Entre las personas que han participado, desde estudiantes de Ciencias Políticas hasta profesorado de Derecho de la UPV o familias procedentes de Bilbao y de otros municipios de Bizkaia. La mayoría de los y las visitantes han destacado el acierto de esta iniciativa de las Juntas Generales de Bizkaia que ha abierto sus sedes a la ciudadanía para dar a conocer el funcionamiento histórico y actual de esta institución.

En todas estas visitas guiadas y gratuitas, el itinerario ha comenzado en la sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en el número 6 de la bilbaína calle Hurtado de Amezaga. Esta institución atesora una importante colección de arte contemporáneo en la que se puede destacar el bronce “Guernica” de Jorge Oteiza que `preside´ la Sala de Comisiones donde se debaten asuntos relacionados con la gobernación del territorio histórico. Allí han podido recorrer las instalaciones, ver las obras de arte diseminadas por todo el edificio y ocupar en la Sala de Comisiones los puestos que habitualmente ocupan junteros y junteras de diferentes partidos y Diputados y Diputadas forales.

Tras ver la sede bilbaína, se han desplazado en autobús los días 20 de octubre y 28 y 30 de noviembre para visitar la Casa de Juntas de Gernika, los días 7 y 9 de noviembre, para ver la Casa de Juntas de Gerediaga y finalmente, el jueves 12 de diciembre y hoy, día 15, para conocer la Casa de Juntas de Abellaneda (Museo de las Encartaciones). Precisamente en el Parlamento encartado ha terminado hoy la última visita programada este año.

Las Juntas Generales de Bizkaia ya están trabajando en la segunda edición del programa “Batzarretik Batzarrera”, tras la buena respuesta de la ciudadanía. De hecho, ya hay 80 personas en lista de espera deseosas de conocer mejor las sedes y el funcionamiento histórico y actual de las Casas de Juntas de nuestro territorio.